## TOLOSAKO UDALA

*Iragarkia*

Tolosako Udalak ondorengo oinarriak onartu ditu, Gobernu Batzarrak 2010eko otsailaren 1ean hartutako erabakiaren bidez:

*Euskarazko web guneei diru laguntzak emateko 2010. urteko oinarriak.*

*1. Helburua.*

Oinarri hauen helburua da kultur, kirol, aisialdi, enpresa, merkataritza, ostalaritza eta oro har publiko zabalari interesgarri gerta dakizkiokeen informazioa eta edukiak, euskaraz, informazio teknologien bidez hedatzeko diru laguntzak jasotzeko baldintzak arautzea.

*2. Eremua.*

Diru laguntza hauen xedea da arestian aipatutako edozein alorretako, beti ere, publiko zabalari interesgarri gertatzen zaion neurrian, erakunde eskatzaileari gastuak murriztea euskararentzat garrantzitsua den erabilera-esparru honetan leku oparoa izan dezan bertako eta berezko hizkuntzak.

Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte aipatutako esparruetan proiektu edota informazioa sustatu eta aurrera eramaten dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoek, egoitza sozial eta fiskala Tolosan baldin badute.

Elkarte, erakunde edota norbanako eskatzaileen edukietatik abiaturik, web guneak sortu edota erdaraz sortuta daudenak euskaratzeko proiektuak dira diruz lagunduko direnak.

*3. Baldintzak.*

a) Edukiak oso-osorik euskaraz izango dira gutxienik. Honek ez du eragozten beste hizkuntzetan ere izatea. Domeinuan sartzerakoan euskara izango da lehenetsitako hizkuntza, euskara izango da pantailaratzen lehena.

b) Hizkuntzaren kalitatea eta zuzentasuna ezinbestekoak dira.

c) Elikatzea: Bisita kopurua, kalitatea zein erabilgarritasuna eta eguneratzea.

d) Eduki horien barruan legeetan babestutako gairik baldin badago, eskatzaileak eduki horien gaineko baimenaren jabe izan behar du.

e) Web gunea egina izatea diru eskaera egiterako eta eskaera orrian helbidea jartzea Udalak ikuskatu ahal izateko.

*4. Baztertzeak.*

a) Web gune pertsonalak.

b) Edozein eratako edo mailatako irakaskuntza erakundeei lotutako guneak.

c) Edozein herri erakunderi lotutako enpresa, talde, elkarte eta abarretako guneak.

d) Eduki iraingarria edota pertsonen eskubideen aurkakoa dutenak.

e) Edukietara sartzeko edonolako mugakizuna jartzen dutenak edo zerbitzuaren trukean ordainketa eskatzen dutenak.

f) Diru laguntzak duen helbururako lehendik diru laguntza jaso dutenak.

g) Tolosako Udalaren diru laguntzaren bat aurten jaso dutenak edota jasoko dutenak hizkuntza irizpideak baldintza gisa izanda.

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Anuncio*

El Ayuntamiento de Tolosa, por acuerdo de la Junta de Gobierno celebrada el día 1 de febrero de 2010, ha aprobado las siguientes bases:

*Bases para la concesión, en el 2010, de subvenciones a sitios web en euskara.*

*1. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases regular los requisitos para la concesión de subvenciones a aquellas entidades de carácter cultural, deportivo, recreativo, empresarial, hostelero o comercial, para la difusión, en euskara, por medio de las tecnologías de la información, de contenidos e información de interés general.

*2. Ámbito.*

El objeto de estas ayudas es reducir los gastos a las entidades solicitadoras de cualquiera de los ámbitos referidos en el párrafo anterior, en la medida en que resulten de interés para el público en general, para que el euskara, lengua propia, tenga una amplia presencia en un espacio de uso tan importante para ella.

Tendrá la consideración de beneficiaria la persona física o jurídica que promueva o desarrolle proyectos o información en los mencionados ámbitos, siempre y cuando tenga su domicilio social y fiscal en Tolosa.

Serán objeto de la subvención los sitios web creados en euskara o los proyectos para traducirlos al euskara, de asociaciones, organizaciones o de particulares.

*3. Requisitos.*

a) Los contenidos deberán estar escritos al menos en euskera, lo cual no impide que estén, asimismo, escritos en otro idioma. Al entrar en el dominio, la lengua predeterminada será el euskara.

b) Son imprescindibles la calidad y el correcto uso del idioma.

c) Se deberá contabilizar el número de visitas y actualizar el sitio; asimismo, éste será de calidad y fácil de utilizar.

d) En el caso de que dentro de los contenidos existan temas protegidos por la Ley, el/la solicitante deberá ser propietario/a de la licencia de dicho contenido.

e) El sitio web deberá estar instalado antes de solicitar la subvención, y en la solicitud deberá señalarse la dirección, para que el Ayuntamiento pueda examinarlo.

*4. Quedan excluidos:*

a) Web personales.

b) Sitios web relacionados con cualquier entidad docente.

c) Sitios web de empresas, asociaciones, entidades y similares relacionados con cualquier organismo público.

d) Aquéllos que contengan contenidos ofensivos o contrarios a los derechos de las personas.

e) Aquéllos que presenten cualquier tipo de limitación para acceder a ellos o los que se deban abonar a cambio del servicio.

f) Aquéllos que hayan recibido una subvención con este mismo objeto.

g) Aquéllos que hayan recibido o vayan a recibir este año alguna subvención del Ayuntamiento de Tolosa, siendo los criterios lingüísticos uno de los requisitos.

h) Euskararen erabilera sustatzea diru laguntza eskatzen duenaren helburu edo egitekoa denean.

i) Web gunearen itzulpena Udalak eginez gero ez du diru laguntzarik jasoko.

*5. Eskaerak aurkeztea.*

Eskaera inprimakia, egoki beteta, Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Departamentura helarazi behar da.

Agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

— Gastuen jatorrizko ziurtagiriak edo horien fotokopia konpultsatuak.

— Diruz lagundutako jardueraren oroitidazkia.

Eskaerak aurkezteko epea 2010eko ekainaren 30ean amaituko da.

*6. Balorazioa eta diru laguntza ematea.*

Diru laguntza emateko eta zenbatekoa erabakitzeko, alderdi hauek baloratuko dira:

a) Gunearen edukiak etengabe eguneratzeko jarriko diren bitartekoak.

b) Forma eta diseinu aldetik landua izatea, argia eta erabilerraza.

c) Maila eta era desberdinetako ezintasunak dituztenentzat aproposa izatea.

d) Software askea erabiltzea.

*7. Balorazio Batzordea.*

Partaideak:

Tolosako Udaleko informatika zerbitzuko teknikaria.

Tolosako Udaleko IKHA (Espediente kudeaketa) zerbitzuko teknikaria.

Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeko kideak.

Balorazio Batzordeak kanpoko adituen iritzia eskatu ahal izango du.

Balorazio batzordeak, ezarritako irizpideak aintzat hartuta, ebazpen-proposamena egingo dio Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrari, hark behin betiko erabakia har dezan.

*8. Diru laguntzen zenbatekoa.*

Oraingoz, 2.000 €-ko diru laguntza banatuko da. Eskatzaile bakoitzari, gehienera ere, web gunea euskaraz egiteak izan duen kostuaren % 50 emango zaio, 500 euroko muga gainditu gabe.

Bestalde, emandako diru laguntzak, eskura ditzakeen beste diru laguntzekin batera, ezingo du egindako inbertsioaren kopurua gainditu. Horretarako, beste laguntzarik jaso edo jaso ez izanaren aitorpena aurkeztu beharko du.

*9. Diru laguntzen ordainketa.*

Eskaera aurkeztu eta baldintzak betetzen dituenari bi hilabeteko epean helaraziko zaio Gobernu Batzarrak ontzat jotako diru laguntza.

h) Aquéllos sitios web de solicitantes cuyo objetivo o función sea el fomento del uso del euskara.

i) Aquéllos cuya traducción la haya realizado el Ayuntamiento.

*5. Presentación de solicitudes.*

La solicitud, debidamente cumplimentada, debe remitirse al Departamento de Euskara y Educación del Ayuntamiento de Tolosa.

Así mismo, se deberá presentar la siguiente documentación:

— Facturas originales de los gastos o fotocopias compulsadas de los mismos.

— Memoria de la actividad para la que se solicita la subvención.

El plazo de presentación de solicitudes finaliza el 30 de junio del 2010.

*6. Valoración y concesión de la subvención.*

Se valorarán los siguientes aspectos para conceder la subvención y determinar la cuantía:

a) Los medios dispuestos para la actualización continua de los contenidos del sitio.

b) Que se hayan trabajado la imagen y el diseño, que sea claro y fácil de utilizar.

c) Que sea accesible para discapacitados/as de distinto nivel y naturaleza.

d) Que use software libre.

*7. Comisión de Valoración.*

Formado por:

El técnico del Servicio de Informática del Ayto. de Tolosa.

El técnico del Servicio IKHA (Gestión de Expedientes) del Ayto. de Tolosa.

Los/las miembros de la Comisión de Educación y Euskara del Ayto. de Tolosa.

La Comisión de Valoración podrá solicitar un informe externo.

La Comisión de Valoración, de acuerdo con los criterios establecidos, elevará su proposición de resolución a la Comisión de Gobierno para su estudio y, si procede, aprobación definitiva.

*8. Cuantía de las subvenciones.*

En principio, se repartirán 2.000 euros. Cada solicitante, como máximo, recibirá el 50% del coste que ha supuesto instalar el sitio web en euskara, hasta un máximo de 500 euros.

Por otra parte, en ningún caso la subvención concedida, junto con otras que se puedan recibir, podrá superar el importe de la inversión realizada. Para ello, se deberá presentar la declaración referida a la obtención o no de algún otro tipo de subvención.

*9. Pago de las subvenciones.*

Los/las solicitantes que cumplan los requisitos recibirán la subvención aprobada por la Comisión de Gobierno dentro del plazo de dos meses contados a partir de la presentación de la solicitud.

*10. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea.*

Bi hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Epe hori amaitu eta ebazpenik eman ez bada, eskatutakoa ukatu egin dela ulertuko da.

Tolosa, 2010eko martxoaren 1a.—Jokin Bildarratz Sorron, Alkatea. (2584)

*10. Plazo para la resolución y notificación.*

Será de dos meses, contados a partir de la finalización del periodo para la presentación de solicitudes. Si en dicho plazo no se notifica la resolución, se entenderá por denegada la solicitud.

Tolosa, a 1 de marzo del 2010.—El Alcalde, Jokin Bildarratz Sorron. (2584)